

fagorederlantaldea

# JOKABIDE KODEA



Berrikuspen zk.	Data	Berrikuspena
01	2017.09.22	Kontseilu Errektoreak onartzea
02	2021.12.16	Aldatzea eta Kontseilu Errektoreak onartzea
03	2023.11.21	Aldatzea eta Kontseilu Errektoreak onartzea. Otsailaren 20ko 2/2023 Legera egokitzea (lege horrek arauak hausteari eta ustelkeriaren aurka borrokatzeari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babestea arautzen du).

<b>1.</b>	<b>SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>2.</b>	<b>APLIKAZIO EREMUA ETA BETETZE BETEBEHARRA</b>	<b>5</b>
<b>3.</b>	<b>JOKABIDE ARAU OROKORRAK</b>	<b>6</b>
3.1	Jokabide profesional zintzoa izatea	6
3.2	Fagor Ederlan Taldearentzat lotesleak diren legezkotasuna, barne arauak eta kontratuak errespetatzea	6
3.3	Fagor Ederlan Taldearen irudia eta izena sustatzea	7
<b>4.</b>	<b>GIZA ESKUBIDEAK ETA LAN BALDINTZAK</b>	<b>8</b>
4.1	Giza Eskubideen eta Pertsonen errespetua	8
4.2	Lan astunen eta neketsuen debekua	8
4.3	Pertsonen trafikoaren debekua eta atzerriko herritarren babesa	9
4.4	Umeen lanaren debekua eta adin txikikoak babestea	9
4.5	Lan Baldintzak	9
4.6	Soldata eta irabaziak	10
4.7	Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza	10
4.8	Elkartzeko, Negoziatio Kolektiborako eta Kanpoko Ekintzetarako askatasuna	10
4.9	Etengabeko prestakuntza	10
<b>5.</b>	<b>LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA</b>	<b>11</b>
<b>6.</b>	<b>USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA</b>	<b>13</b>
6.1	Ustelkeria pribatu eta publikoaren prebentzioa	14
6.2	Esportazioak	14
6.3	Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzea	14
6.4	Piezen faltsifikazioaren prebentzioa	14
6.5	Lehia librea, merkaturak eta kontsumitzaileak babestea	14
6.6	Interes Gatazkak	15
<b>7.</b>	<b>INGURUMENA</b>	<b>16</b>
<b>8.</b>	<b>TRATUA BAZKIDE KOMERTZIAL ETA HIRUGARRENEKIN</b>	<b>18</b>
8.1	Administrazio Publikoekiko betebeharrak betetzea	18
8.2	Hornitzaile, Bezero eta, oro har, Alde Interesdunekiko harremanak eta Hornidura katearen kudeaketa arduratsua	19
<b>9.</b>	<b>INFORMAZIOAREN KUDEAKETA</b>	<b>20</b>
9.1	Informazioaren Segurtasuna	20
9.2	Intimitatea babestea. Datu pertsonalen erabilera	21
9.3	Informazio Konfidentzialaren tratamendua eta babesa Sekretu profesionala	21
9.4	Fagor Ederlan Taldearen benetako ondarearen egiazkotasuna eta zehaztasuna	21
<b>10.</b>	<b>FAGOR EDERLAN TALDEAREN JABETZAREN BABESA ETA ERABILERA</b>	<b>22</b>
10.1	Fagor Ederlan Taldearen aktibo eta baliabideen erabilera arduratsua	22
10.2	Segurtasun informatikoaren eta jabetza intelektual eta industrialaren babesa	22
<b>11.</b>	<b>KODEA APLIKATZEA. KOMUNIKAZIOAK ETA JARRAIPENA</b>	<b>23</b>
11.1	Indarrean jartzea	23
11.2	Jokabide Kodearen interpretazioa	23
11.3	Betetze Batzordea	23
11.4	Ez-betetzea eta Barruko Informazio Sistemari jakinaraztea	24
11.5	Jakinarazpenen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua	24
11.6	Komunikazioak tramitatzea	25
11.7	Komunikazioak kanal ez-ofizialen bidez edo baimenik gabeko pertsonaren bidez jasotzea	25
11.8	Errugabetasun presuntzioa eta ohorerako eskubidea	25
11.9	Komunikazioak izapidetzea Whistleblowing Europako Zuzentarauaren irismenetik kanpo dauden Fagor Ederlan Taldearen sozietateetan	26



## 1. SARRERA


**Fagor Ederlan Taldearen** helburua da bere jokabideak eta bera osatzen duten Pertsonenak indarrean dagoen legediaren eta Jokabide Kode honetan ezarritako Printzipio Etikoen araberakoa izatea.

Jokabide Kode hau **Fagor Ederlan Taldearen** Compliance Programen barruan dago, eta helburu hauek ditu:

- > Pertsonak jarduteko gida izatea **Fagor Ederlan Taldeko** jarduera profesionalaren barruan eta **Fagor Ederlan Taldeko** gainerako Pertsonetikiko, Hornitzaileetikiko, Alde Interesatuekiko, Bezeroekiko, Administrazio Publikoekiko eta, oro har, gizartearekiko harremanetan.
- > Pertsonak beren lanbide jarduera gauzatzean delitu portaerak eta legez kontrako edozein portaera izatea prebenitzea.

Jokabide Kodeak **Fagor Ederlan Taldearen** jada badagoen enpresa kultura sendotu ere egin nahi du.

**Fagor Ederlanek** ez du Jokabide Kode honen aurkako egintzarik onartzen. Jokabide Kode honetan ezarritako Printzipio Etikoak benetan eta eraginkortasunez aplikatzen direla zainduko da, eta Ez-betetzeak Betetze Batzordeak kudeatuko ditu Barruko Informazio Sistemaren bidez.



## 2. APLIKAZIO EREMUA ETA BETETZE BETEBEHARRA

Jokabide Kodean eta Compliance Programen oro har jasotako Printzipio Etikoak eta Jokabide Arauak nahitaez bete behar dituzte **Fagor Ederlan Taldea** osatzen duten Pertsona guztiek.

**Fagor Ederlan Taldea** osatzen duten Pertsonak Jokabide Kode honen edukia eta bertan jasotako Printzipio Etikoak ezagutu eta bete behar dituzte.

Kontrolatutako Sozietateei aplikatu dakieke Jokabide Kodea, baita, ahal den neurrian, **Fagor Ederlan Taldearen** partaidetza duten gainerako sozietateei ere.

Jokabide Kodea, ahal den neurrian, **Fagor Ederlan Taldeko** Hornitzaile, Alde Interesdun eta Bezeroetara zabalduko da.

Jokabide Kodea, ahal den neurrian, **Fagor Ederlan Taldeak** edozein eremu geografikotan, tokikoan zein nazioartekoan, egiten dituen jardueri aplikatuko zaie.



## 3. JOKABIDE ARAU OROKORRAK

### 3.1 Jokabide profesional zintzoa izatea

**Fagor Ederlan Taldeko** Pertsonen jokabidea profesionaltasunean eta zintzotasunean oinarritu beharko da.

- > Profesionaltasuna jarduera arretatsua, arduratsua, zuhurra eta efizientea da.
- > Zintzotasuna da portaera leiala, zintzoa eta fede onekoa, norberarekiko eta besteekiko errespetuduna jarduera profesionala burutzean, Pertsonarengan jarritako konfiantzarekin bat datorrena.

Pertsonek Jokabide Kode honetan ezarritako Printzipio Etikoak aplikatuko dituzte norberarekiko eta besteenganako eta ez dute euren jarduera profesionala agindutakoa ez den beste helburu batzuetara bideratuko.

### 3.2 Fagor Ederlan Taldearentzat lotesleak diren legezkotasuna, barne arauak eta kontratuak errespetatzea

Pertsona guztiek indarrean dauden legeak errespetatu beharko dituzte euren jarduera profesionalak garatzean **Fagor Ederlan Taldea** aritzen den lurralde guztietan

Pertsonek Jokabide Kode hau bete beharko dute eta baita **Fagor Ederlan Taldearen** Compliance Program osatzen dituzten Kontrolak ere.

Pertsonek **Fagor Ederlan Taldeak** hirugarrenekin egindako kontratu harremanetan bere gain hartutako betebeharrak errespetatu beharko dituzte, hala nola jarduera profesionala burutzen duten herrialdeetako erabilera eta praktika onak.

**Fagor Ederlan Taldea** lotzen duten legeak, Jokabide Kodea, Kontrolak edo kontratuak ez ezagutzeak, edo **Fagor Ederlan Taldearen** barruan arau hauste orokorra delako arudioak ez dute ez-betetzea justifikatuko.

Jarduera profesionalean **Fagor Ederlan Taldean** indarrean dauden Legearen, Jokabide Kodearen, Kontrolen eta kontratuen aurkako jarraibideak edo aginduak jasotzeak ez die erantzukizunik kentzen jarraibide edo agindu horien arabera diharduten Pertsoneri.

Zuzendarien eta Pertsona taldeak kudeatzen dituztenen betebeharrak:

- > Dagozkien jardueren arloei eragiten dieten legeak, Jokabide Kodea, Kontrolak eta kontratuak hobekien ezagutzen dituztenak izatea.
- > **Fagor Ederlan Taldean** jokabidearen erreferenteak izatea.
- > Euren ardurapean dauden Pertsonen **Fagor Ederlan Taldeari** eragiten dioten legeak, Jokabide Kodea, Kontrolak eta kontratuak ezagutu eta betetzea ahalbidetuko dien informazioa eta formazioa jasotzen dutela zaindu eta ziurtatzea.


Arau edo kontratu baten aplikazio eta interpretazioarekin zalantzarik izanez gero, Pertsonen zuzeneko arduradunarekin kontsultatu beharko dute, eta, azken aukera moduan, Betetze Batzordearekin.

### 3.3 Fagor Ederlan Taldearen irudia eta izena sustatzea

**Fagor Ederlan Taldeak** izen sendoa dauka bere eskarmentu zabalagatik eta pertsona talde fidagarri eta leialagatik, zeina **Fagor Ederlan Taldearen** kultura osatzen duten Printzipio Etikoak eta egiten jakitearekin konprometituta baitago.

Pertsona guztiek zaindu behar dute **Fagor Ederlan Taldearen** irudia eta izena beren jarduera profesional guztietan. Halaber, Hornitzaile, Alde Interesdun eta Bezeroek ere korporazioaren irudia eta izena errespetatu eta ondo erabiltzen dutela zainduko dute.





## 4. GIZA ESKUBIDEAK ETA LAN BALDINTZAK

### 4.1 Giza Eskubideen eta Pertsonen errespetua

**Fagor Ederlan Taldeak** Giza Eskubideen Adierazpenaren printzipio nagusiak aitortzen ditu, Nazio Batuen 1984ko definizioaren arabera.

**Fagor Ederlan Taldeak** agintzen du tokiko komunitateen eskubideak eta komunitate horiek lurra, basoak eta ura eskuragarri izateko duten eskubidea errespetatuko dituela, eta ez duela onartuko jatorriko herriei euren lurrak utzaraztea.

**Fagor Ederlan Taldeak** ez du onartzen segurtasuneko langileek edozein motatako legez kanpoko jokabideak edukitzea enplegatuekin edo hirugarrenekin. **Fagor Ederlan Taldeak** ahalegin guztiak egiten ditu segurtasun zerbitzuen hornitzaileak giza eskubideak errespetatzera behartuta egon daitezen kontratu bidez, eta behar den guztietan aholkularitza eta prestakuntza egokia jasotzera.

### 4.2 Lan astunen eta neketsuen debekua

**Fagor Ederlan Taldea:**

- > Ez da indarririk erabiliko (\*).
- > Ez dira lankideak lan astunak edo esklabotzakoak egitera behartuko.

\* Lan astuntzat hartzen da zigor edo norberaren gauzak (hala nola NANA, pasaporteak, etab.) kentzeko mehatxuarekin egindako lana, pertsona ez bada hori egiteko borondatez aurkeztu.



### 4.3 Pertsonen trafikoaren debekua eta atzerriko herritarren babesa

**Fagor Ederlan Taldeak** bere gain hartzen du atzerriko herritarren zaintza, atzeritarrei buruz dagokion araudia betez.

**Fagor Ederlan Taldea** osatzen duten Pertsonak ez dute Europar Batasuneko estatu bateko naziokoa ez den pertsona bat estatuan sartzen, egoten edo pasatzen lagunduko, atzeritarren sarrera edo trantsituaren gaineko legedi aplikagarria kaltetzen bada.

### 4.4 Umeen lanaren debekua eta adin txikikoak babestea

**Fagor Ederlan Taldeak** ez du umerik kontratatuko (\*) eta langile guztien jaiotze data jasotzen duen erregistro bat izango du.

Gure lantegietan adin txikikoren baten presentzia antzemanaz gero, Kudeaketa Sozialeko Sailean jakinaraziko da dagokion kontratua desegiteko, eta arrazoiak aztertu eta dagozkion ekintza zuzentzaileak eta prebentziokoak zehaztuko dira.

\* 1973ko Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OIT-ILO) arabera, umetzat hartzen da 15 urtetik beherako pertsona oro, bertako legeek adin altuagoa edo derrigorrezko eskolaratzea zehazten duten kasuetan izan ezik, eta hala denean adinik handiena aplikatuko da.

Tokiko legeak 13 eta 15 edo 12 eta 14 urte bitarteko umeei lan egitea baimendu dezakete kasu hauetan:

- > Adin txikikoaren osasuna edo garapena ez dutenean kaltetzen; eta
- > Eskolara edo formazio programetara joatea eragozten ez dutenean.

### 4.5 Lan Baldintzak

Pertsona guztiek sustatuko dute maila profesional guztietan elkarrekiko errespetua, osotasuna, zintzotasuna, konfiantza, lankidetzeta eta esfortzua taldean lan egitean, laneko giro ona lortzeko helburuarekin.

**Lan kontratuak: indarrean dagoen legea betetzea**

- > **Fagor Ederlan Taldeko** langileak herrialde bakoitzean indarrean dagoen legediaren arabera kontratatu beharko dira, eta kontratu idatzi bat (edo baliozko dokumentua) egon beharko da.

**Lan jarduna eta aparteko orduak**

- > **Fagor Ederlan** pertsonen eta langileen lan jardunak edo egutegiak ez du legezko muga gainditu behar inola ere.

**Baimenak**

- > **Fagor Ederlan Taldeko** langileek herrialde bakoitzean indarrean dagoen legediaren araberrako baimenak izan behar dituzte (gaixotasuna, oporrak, amatasuna, jai ofizialak eta baliokideak).

## 4.6 Soldatak eta irabaziak

### Soldata

#### *Soldata baldintzak*

- > **Fagor Ederlan Taldeak** bere langileei gutxienez lanbidearteko gutxienerako soldata ordaindu beharko die, herrialde bakoitzeko legeen arabera (Legeak lan egin behar dela ezartzen dituen lanorduak oinarritzat hartuta).
- > Soldatak erregularitasunez ordaindu behar dira egindako lanaren arabera eta herrialde bakoitzean ezarritako legediaren arabera.

#### *Aparteko orduak ordaintzea*

- > **Fagor Ederlan Taldeko** langileek egindako aparteko orduen konpentsazioa jaso beharko dute legeak zehazten duenaren arabera.

### Irabaziak

- > **Fagor Ederlan Taldeak** bere lankideak legez eskubidea daukaten onurak eman beharko ditu (mediku aseguruak, gizarte segurantzak, pentsioak eta baliokideak).

## 4.7 Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza

**Fagor Ederlan Taldeak** dauden ezberdintasun kulturalak eta herrialde bakoitzean aplikatu behar diren estandar ezberdinak aitortzen ditu.

**Fagor Ederlan Taldean** jarduteko Printzipio Etiko bat da lana lortzeko eta laneko promozioan aukera berdintasuna eskaintzea, horretarako sexu, orientazio sexual, arraza, desgaitasun, gaixotasun, erlijio edo diskriminazio iturri izan daitekeen beste edozein ezaugarriengatik ezberdintasunik egingo ez dela ziurtatuta une oro.

## 4.8 Elkartzeko, Negoziazio Kolektiborako eta Kanpoko Ekintzetarako askatasuna

**Fagor Ederlan Taldeak** bera osatzen duten Pertsonak jardura sozial eta publikoak egitea errespetatzen du, betiere haien jardun profesionalean eraginik ez badute.

**Fagor Ederlan Taldeak** sindikatzeo eskubidea, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa onartzen ditu lan esparruan.

Pertsonak alderdi politiko edo helburu publikoak dituzten beste erakunde batzuekin, instituzioekin edo elkarteekin izan ditzaketen loturak pertsonalak izango dira, eta **Fagor Ederlan Taldearekin** erlazioa izatea ekidingo da.

## 4.9 Etengabeko prestakuntza

**Fagor Ederlan Taldeak** Pertsonen ezagutzak eta konpetentziak prestatzeko bitartekoak jarriko ditu, horien garapen profesionala errazteko helburuarekin. Etengabeko prestakuntza bereziki Gizarte Erantzukizun Korporatiboari, Gai Sozialei eta Ustelkeriaren aurkako Politikari buruzko gaietan egingo da.

Pertsona guztiak egin behar dituzte **Fagor Ederlan Taldeak** euren eskura jartzen dituen formazio ikastaroak, **Fagor Ederlan Taldearen** barruan dituzten funtzioen eta jardueren arabera, eta formazioaren aprobetxamendurik onena ateratzeko ahalegina egingo dute.

## 5. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

**Fagor Ederlan Taldeak** laneko arriskuen gain egin beharreko ekintzak egingo ditu prebentzioaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegiarekin.

**Fagor Ederlan Taldeak** bere bazkide eta langileei lan egiteko leku eta prozesu seguru, garbi eta osasuntsuak eskainiko dizkie, herrialde bakoitzean aplikatu beharreko legeak betez.

Pertsonen euren jardun profesionalerako beharrezko segurtasun, ergonomia eta higienarako neurri egokiak eskainiko zaizkie, Pertsonen bizitza, osasuna eta osotasun fisikoa arriskuan jarri ez dadin.


Pertsonen une oro errespetatuko dituzte laneko segurtasun eta osasunerako aplikatu beharreko prebentzio neurriak, **Fagor Ederlan Taldeak** ezarritako baliabideak erabilia eta lantaldeetako kideek euren jarduerak segurtasun baldintzetan egiten dituztela ziurtatuta.



**Fagor Ederlan Taldeak** Laneko Segurtasun eta Osasun Politika bat dauka, eta horrekin konpromisoa hartzen du prozesu eta lantoki seguruak eta osasungarriak izateko, baita Laneko Segurtasunarekin eta Osasunarekin inplikaturik dauden pertsonak ere, "Zero Istripu" izateko helburuarekin, eta, horretarako, konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- > ISO 45001 arauan oinarritutako Kudeaketa Sistema bat izatea, Laneko Segurtasuna eta Osasuna babesteko eta hobetzeko funtsezko elementu gisa. Sistema horrek, herrialde bakoitzeko indarrean dagoen legeria eta beste betekizun batzuk betetzeaz gain, ahalbidetuko du langileen lan baldintzak etengabe hobetzea eta haien osasuna sustatzea, dauden lan arriskuen aldizkako ebaluazioak eginez, larrialdiei aurre egiteko jarduketak ezarri eta istripuak eta gertakariak modu eraginkorrean kudeatuz.
- > Arrisku bideak ezabatzea eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko arriskuak murriztea, eta, horretarako, Plan Estrategikoetan eta Kudeaketa Planetan horretara bideratutako baliabideak sartuko dira, eta makina seguruak, postu ergonomikoak, lan kargaren banaketa egokia, babes ekipamendu kolektiboak eta indibidualak, gai kimikoak segurtasunez manipulatzeko bitartekoak eta suteetatik babesteko sistemak jarriko dira.
- > Erakundearen maila guztietan sartzeko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketa, lan horrek dakartzan ardurak definituta eta ardura horiek arrakastaz betetzeko behar diren bitartekoak eta trebakuntza eskainita.
- > Prebentzioaren kultura bat garatzea, taldeko pertsonak Laneko Segurtasun eta Osasunarekin modu autonomoan eta proaktiboan konpromisoa hartu dezaten.
- > Ezarritako helburuen eta edukitako lorpenen berri ematea langileei, langileak partaide bihurtzea eta haiei kontsulta egitea.
- > Prestakuntzarako programak eta parte hartzeko kanalak ezartzea, **Fagor Ederlan Taldeko** pertsona guztiek Politika, Helburuak eta Kudeaketa Sistema betetzeko aurrekusi diren jarduerak gauzatzeko konpromisoa hartu dezaten.





## 6. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

### 6.1 Ustelkeria pribatu eta publikoaren prebentzioa

**Fagor Ederlan Taldeak** ez du onartzen legez kontra **Fagor Ederlan Taldetik** kanpo dauden pertsonen nahian eragitea irabazi edo abantailen bat lortzeko. Ustelkeria, eroskeria edo kalterako ekintzak guztiz debekatuta daude, baita zilegi ez den moduan edozein abantaila mota lortzeko eskaintza edo promesa zuzen edo zeharkakoak ere.

Ezin da eragimen trafikoa sor dezakeen inolako ekintzarik egin, eta, zehazki, jarraian laburtzen diren ekintzak:

- > Zuzenean eragitea funtzionario publiko edo agintari batengan.
- > Zeharka eragitea hirugarren baten eskaintza onartuta.
- > Hirugarren baten zerbitzuen bidez eragitea.

Beraz, Pertsonak Hornitzaileekin, Alde Interesdunekin, Bezeroekin, Administrazio Publiko nazional zein hirugarren herrialdeetakoekin eta nazioarteko erakundeekin dituzten harremanetan portaera zuzena izan beharko dute, pertsona partikular, agintari edo funtzionario publiko bat inpartzialtasunaren betebeharra edo bestelako edozein lege agindu urratzera behartu gabe.

Opariak edo erregaluak **Fagor Ederlan Taldea** markaren irudia sustatzera bideratuta daude. Ezin dira opari edo erregaluak eman ez onartu, zuzenean edo zeharka, jarduera profesionalen **Fagor Ederlan Taldeko** harremanetan zilegi ez den moduan eragiteko.

Opari eta erregaluak eman eta onartu daitezke balio ekonomiko mugatua edo sinbolikoa dutenean eta kortesia edo arreta komertzialerako direnean.

Ez dira onartuko mantenu, egonaldi edo bidaiak gastuak ordaintzeko hirugarrenen gonbidapenak, justifikatu ezean eta aurretik Betetze Zuzendaritzaren baimena lortu ezean.

Debeku horiek kasuan kasuko partikular, agintari edo funtzionario publikoarekin familia edo adiskidetasun harremana dutenezat ere izango dira.

## 6.2 Esportazioak

Esportazioen kontrolaren esparruan, ondasunen mugaz gaindiko trukea debekuen, murrizketen, agintarien onarpenen edo gainbegiratzeko beste neurri batzuen menpe dago.

Inportazioko eta esportazioko jardueretan, **Fagor Ederlan Taldeak** ondasunak, zerbitzuak eta informazioa inportatzeko eta esportatzeko aplikatu beharreko arauk guztiak betetzen ditu, baita ere **Fagor Ederlan Taldearen** barne araudiak eta gainerako operadoreek ezarritako kanpo araudiak ezartzen dituztenak ere, eta bere hornitzaile guztiak bete behar dituzte horiek.

Erabat debekatuta dago dagozkien herrialdeetako zehapen zerrrenda ofizialetan agertzen diren pertsonekin edo enpresekin negoziokoak egitea, entrega prozesua edozein dela ere. Berariaz debekatuta daude kontrabandoarekin zerikusia izan dezaketen jarduerak.

Ondasunak eta zerbitzuak inportatzeari edo esportatzeari buruzko erabakiak hartzerakoan, behar bezala aztertzen da erabaki hori esportazioen kontrolaren menpe egon daitekeen. Zalantzarik izanez gero, aholkularitza eskatzen zaio dagokion departamentuari

## 6.3 Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzea

**Fagor Ederlan Taldeak** kapitalak zuritzeari eta terrorismoa finantzatzeari buruz aplikagarriak zaizkion lege nazional eta nazioarteko guztiak beteko ditu une oro.

Bezeroak identifikatzeko, informaziorako eta barruko kontrolerako ezarritako neurriak aplikatuko dira, eta kapitalen zuriaketaren eta zilegi ez den edozein jarduera finantzatzearen aurkako borrokan diharduten agintari arduradunekin lankidetzan jardungo da erabat.

## 6.4 Piezen faltsifikazioaren prebentzioa

**Fagor Ederlan Taldeak** metodo eraginkorrek eta prozesu egokiak garatzen, ezartzen eta mantentzen ditu entregatzen dituen produktuetan faltsututako piezak eta materialak sartzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko.

## 6.5 Lehia libre, merkataua eta kontsumitzaileak babestea

Pertsonen abusua edo lehia zilegi ez den moduan murriztea izan daitekeen edozein jokabide mota ekidingo dute. **Fagor Ederlan Taldeak** edozein erakundetan parte hartzeari dagokionez, ekintza horien praktikatik eratorritako prezioak jartzeko askatasuna errespetatzea bermatzeko beharrezko printzipioak beteko dira, eta, orokorrean, indarrean dagoen legedia.

Ez da **Fagor Ederlan Taldearen**, bere lehiakideen zein hirugarrenen jardueraren gaineko ekintza desleial edo publizitate engainagarririk edo iraingarririk egingo.

## 6.6 Interes Gatazkak

**Fagor Ederlan Taldeko** Pertsonak Interes Gatazka dakarren edozein egoera ekidin behar dute.

Interes Gatazkatzat joko da **Fagor Ederlan Taldeko** pertsonaren baten interes pertsonala eta enpresa beraren interesa talkan sartzen direnean edo eraginda edo desitxuratuta geratzen denean. Interes pertsonala egongo da gaiak Pertsonari zuzenean eragiten dionean edo Pertsonari lotutako beste bati.

Pertsonari lotutakotzat joko da Pertsonaren ezkontidea edo antzeko afektibotasun harremana duen pertsona; Pertsona edo ezkontidearen (edo antzeko afektibotasun harremana duen pertsona) familiaren aurreko eta ondorengo adarrekoak eta nebarrebak; baita sozietateak edo enpresak, Pertsonak edo berari lotutako pertsonak horien kontrol lana egiten badute edo administrazio edo zuzendaritza karguren bat betetzen badute, edo, zuzenean edo zeharka, eragin esanguratsua badute sozietate edo enpresa horien erabaki finantzario eta operatiboetan.

Interes Gatazkak eragindako Pertsonak ez du Interes Gatazkak eragindako erabakietan parte hartuko edo eragingo, ezta erabaki horiek aztertzen diren bileretan parte hartuko ere, eta ez du Interes Gatazka horrek sortzen duen informaziorik jasoko.



## 7. INGURUMENA

**Fagor Ederlan Taldeak** enpresa jardueraren garapenarekin nahiz ingurumenaren babesarekin bateragarria izango den Garapen Jasangarriaren Eredua planteatzen du, indarrean dagoen legedia betez eta prebentzioaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegiarekin, horretarako beharrezko bitarteko eta gaitasunak Pertsonen eskura jarrita.

Pertsonak, beren eskumenen esparruan, ingurumena zaindu eta lege eskakizunak betetzeko konpromiso aktibo eta arduratsua hartzen dute, **Fagor Ederlan Taldeak** bere jardueraren ingurumeneko inpaktua murrizteko ezarri diuen gomendioak eta prozedurak jarraituta. Pertsonak **Fagor Ederlan Taldeak** beren eskura jarritako instalazioak, aktiboak eta baliabideak erabiltzetik eratorritako inpaktua gutxitzeko ahalegina egin beharko dute bereziki.

**Fagor Ederlan Taldeak** Ingurumen Politika bat dauka, zeinarekin Garapen Jasangarriaren alde egiten duen, eta, horretan laguntzeko, funtsezko elementua da ingurumena babestea. Beraz, konpromiso hauek hartzen ditu horretarako:


> Kudeaketa Sistema bat izatea, zeinak indarrean dagoen legedia eta borondatezko beste konpromiso batzuk errespetatzea ez ezik ingurumenaren babesa ezartzea eta etengabe hobetzea ahalbidetuko duen, baliabide naturaletan eta biodibertsitatean eragin kaltegarriak saihesteko prebentzio ikuspegia hartuz eta ingurumen erantzukizun handiagoa sustatzen duten ekimenak sustatuz.



- > Arlo hauek garatzera bideratutako baliabideak txertatzea **Plan Estrategikoetan eta Kudeaketa Planetan**:
  - **Baliabide naturalak**, tartean ura dagoela, **modu jasangarrian kontsumitzea**, eta lehengaiak ere modu jasangarrian erabiltzea.
  - **Berotegi Eftektuko Gasen Emisioa murriztea**, eta bere hiru irismenetatik datozen emisioak kontrolatzea eta **Deskarbonizazio Plan** bat monitorizatzea.
  - **Energia** eta erregaiak **efizentziaz erabiltzea**, **energia berriztagarria** erabiltzea sustatuta.
  - **Zirkulartasuna** sustatzea, eta balio kate osoan **materialen eta hondakinen murrizketa, berrerabilera eta birbalerizazioa/birziklatzea** bultzatzea.
  - **Airearen, uraren eta lurzoruen kalitatea** kudeatzea, horien kutsadura prebenituta, etengabeko jarraipenaren bidez eta kutsatzaileen erabilera murriztuz.
  - **Kutsadura akustikoa** saihestea, industriako zarata mailak kontrolatuz.
  - **Produktu kimikoak modu arduratsuan kudeatzea**, produktuak fabrikatzeko prozesuetan substantzia mugatuak erabilera identifikatuz, minimizatuz eta, ahal dela, ezabatuz, une oro araudia betetzen dela bermatzeko.
  - **Biodibertsitatea** babestea eta **lurraren erabilera eta baso soiltzea** zaintzea, beren jarduerak eragindako ekosistemak aztertuta, bereziki biodibertsitatearen funtsezko eremuak, eta gure eragina minimizatuta.
- > **Formaziozako/informaziozako programak eta parte hartzeko kanalak ezartzea**, **Fagor Ederlan Taldeko** pertsona guztiek Ingurumen Politika, Helburuak eta Kudeaketa Sistema betetzeko aurreikusitako jarduerak gauzatzeko erantzukizuna beren gain har dezaten.
- > **Bezeroekin eta hornidura katearekin** lankidetzan aritzea, gure jarduerak eta gure produktuek ingurumeneari eragindako inpaktua murrizteko, eta ingurumenarekin dituzten konpromiso eta estandar energetikoetan aurrera egitea sustatzea.

**Fagor Ederlan Taldeak** garatutako hirigintza, eraikuntza edo eraikitze jarduerak kasu bakoitzean aplikagarriak diren hirigintza legeak eta administrazio legeak guztiz errespetatuz egingo dira.





## 8. TRATUA BAZKIDE KOMERTZIAL ETA HIRUGARRENEKIN

### 8.1 Administrazio Publikoekiko betebeharrak betetzea

Agintari, organismo erregulatzailer eta Administrazio Publikoekin izan beharreko harremanak lankidetzeta eta gardentasun printzipioen arabera planteatuko dira.

**Fagor Ederlan Taldeak** Administrazio Publikoekin dituen betebeharrak beteko ditu eta, bereziki, Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituenak, baita jasotzen dituen dirulaguntzak ematen dituztenekin edo **Fagor Ederlan Taldeari** kontratu publikoak esleitu dizkietenekin dituenak ere.

Berariaz debekatuta daude zerga betebeharrak saihesteko edo irabaziak lortzeko Ogasun Publikoaren, Gizarte Segurantzaren edo antzeko organismoen kalterako egiten diren portaerak.

Ziurtatuko da Administrazio Publikoei eskatu edo haiek emandako laguntzak egoki erabiltzen ari direla, horiek lortzeko baldintzak faltsutzea edo laguntza ematean xede zen erabilera ez den beste baterako erabiltzea. Era berean, guztiz debekatuta dago jatorri publikoko funts edo kredituak eskuratzeko aurretik **Fagor Ederlan Taldeko** finantza sailaren baimenik izan gabe.

**Fagor Ederlan Taldeak** ez du egingo, ez bere izenean eta pertsona bitartekarien bidez ere, alderdi edo hautagai politikoen finantzazio ilegalik dakarren inolako dohaintzarik edo ekarpenik ezta mailegu edo aurrerakin moduan ere.

## 8.2 Hornitzaile, Bezero eta, oro har, Alde Interesdunekiko harremanak eta Hornidura katearen kudeaketa arduratsua


Hornitzaileak, Bezeroak eta Alde Interesdunak aukeratzeko prozesuetan, Pertsona guztiek aukera, kostu eta jasagarritasun irizpideak aplikatu beharko dituzte, betiere **Fagor Ederlan Taldearen** interesen defentsan jardunda.

**Fagor Ederlan Taldearen** Hornitzaile, Bezero eta Alde Interesdun guztiek oro har bete behar dute Jokabide Kodea. **Fagor Ederlan Taldeak** eskubidea dauka Jokabide Kode honetan xedatutakoa betetzen ez duten hornitzaileekin edozein kontratu amaitzeko.

Hornitzaileek ere beren hornitzaileen Jasagarritasunari buruzko alderdi guztiak exijitu eta kudeatu behar dituzte.

**Fagor Ederlan Taldearen** Hornitzaileek beren Barruko Informazio Sistemetan bermatu behar dute debekatuta egongo dela komunikatzaileen aurkako errepresaliarik egitea.





## 9. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

### 9.1 Informazioaren Segurtasuna

**Fagor Ederlan Taldea**K Informazioaren Segurtasunerako Politika bat du, eta bertan ezartzen da bere IKT sistemen kontrola eta informazioaren segurtasuna funtsezko zereginak direla **Fagor Ederlan Taldearen** helburuak lortzeko. Adierazten da **Fagor Ederlan Taldeak** berak kudeatzen duen informazioa babesteko konpromisoa duela, eta, horretarako:

- > Kudeaketa Sistema bat ezarri da, zeinak indarreko legeria eta borondatezko beste konpromiso batzuk errespetatzea ez ezik informazioaren segurtasuna ezartzea eta etengabe hobetzea ere ahalbidetuko duen.
- > Informazioaren aktiboak horietarako ezarritako babes mailaren arabera kudeatzen dira, informazioa baimenik ez duten pertsonentzat eskuragarri egon dadila, erabilgarri egon ez dadila edo kalterik jasan dezala ekiditeko.
- > Informazioaren segurtasunari lotuta, helburuak betetzea eragotz dezaketen arriskuak identifikatu dira.
- > Helburuak eraginkortasunez lortzeko arriskuak arintzeko planak eta jarraibideak zehaztu dira.
- > Langileen eskura jarri da informazioaren segurtasuna arriskuan jartzen duten egoerei buruz informatzeko kanal bat, egoera azkar konpondu ahal izateko, taldea ahalik eta gutxien kaltetuta.
- > Formaziorako/informaziorako programak ezarri dira, **Fagor Ederlan Taldeko** pertsona guztiek bere gain har dezaten Politika hau betetzeko aurreikusten diren jarduerak gauzatzeko ardura.

## 9.2 Intimitatea babestea. Datu pertsonalen erabilera

**Fagor Ederlan Taldeak** Pertsonen intimitaterako eskubidea errespetatzen du, bere adierazpen guztietan, baita Internet bidez edo beste komunikabideetatik Pertsonak dituzten komunikazioetan ere. Bereziki, pribatutasuna eta datu pertsonalen gaineko eskubideak errespetatuko dira.

Ondorioz, **Fagor Ederlan Taldeak** konpromisoa hartzen du datu pertsonalak ez zabaltzeko, horretarako legitimazio oinarri egokia badago izan ezik. Izaera pertsonaleko datuak sekula ezingo dira tratatu lege helburu edo kontratuan aurreikusitako helburuetarako ez badira.

## 9.3 Informazio Konfidentzialaren tratamendua eta babesa Sekretu profesionala

**Fagor Ederlan Taldeak** informazioa eta ezagutza enpresa kudeaketarako aktibo nagusi eta ezinbestekotzat jotzen ditu, eta, beraz, bereziki babesten ditu.

**Fagor Ederlan Taldeak** daukan informazio ez-publikoa, orokorrean, Informazio Konfidentzialtzat joko da.

Pertsonak Informazio Konfidentziala kontu handienaz erabiliko dute eta informazio hori babesteko bitarteko nahikoak jarriko dituzte, eta informazio horren edukia ezin zaie hirugarrenei eman, Pertsonaren edo kasu bakoitzean **Fagor Ederlan Taldean** eskuduntza duen organoaren babes berezia edo lege errekerimendu bat egon ezean.


Hirugarrenen gaineko informazioa legea betez lortuko da. Pertsonak baztertu egingo dute informazioa zilegi ez den moduan lortzen bada edo jabe legitimoek hori mantentzeko duten konfidentziasuna apurtzen bada.

Informazio Konfidentziala **Fagor Ederlan Talde**etik kanpoko hirugarrenena denean, Pertsonak **Fagor Ederlan Taldeak** hirugarren horiekin izenpetuta dauzkan konfidentziasun akordioak bete beharko dituzte.

**Fagor Ederlan Talde**arekiko lan harreman ohikoa edo berezia amaitzen denean ere Pertsonak konfidentziasun betebeharra bete beharko dute, eta Informazio Konfidentziala gordetzeko zituzten bitarteko edo gailuak bueltatu beharko dituzte.

## 9.4 Fagor Ederlan Taldearen benetako ondarearen egiazkotasuna eta zehaztasuna

- > **Fagor Ederlan Taldearen** informazio ekonomiko-finantzarioak zuzen islatuko du bere ondarearen errealitatea, orokorrean onartutako kontabilitate printzipioen eta informazio finantzarioaren gainean aplikatu behar zaizkion nazioarteko arauen arabera.
- > Inork ez du ezkutatu edo desitxuratuko **Fagor Ederlan Taldearen** erregistro eta kontabilitate txostenen informazioa, zeina egiazkoa eta zehatza izango baita.
- > **Fagor Ederlan Taldeak** informazio fidagarria transmititzeko konpromisoa hartzen du, **Fagor Ederlan Taldearen** irudi leiala eduki ahal izateko.



## 10. FAGOR EDERLAN TALDEAREN JABETZAREN BABESA ETA ERABILERA

### 10.1 Fagor Ederlan Taldearen aktibo eta baliabideen erabilera arduratsua

**Fagor Ederlan Taldeak** Pertsonen eskura jartzen ditu euren jarduera profesionalerako beharrezkoak dituzten aktibo eta baliabideak, horien artean **Fagor Ederlan Taldearen** sistema eta ekipo informatikoak, instalazioak eta baliabide finantzarioak.

Pertsonek **Fagor Ederlan Taldearen** aktibo eta baliabideak babestu eta zaindu beharko dituzte, galdu eta kaltetu ez daitezen edo inork lapurtu edo desegoki erabili ez ditzan, eta, ondorioz, **Fagor Ederlan Taldearen** interesak kaltetu ez daitezen.


Pertsonek **Fagor Ederlan Taldearen** aktibo eta baliabide horiek modu arduratsuan erabiliko dituzte, erabilera hori **Fagor Ederlan Taldearen** Kontrol, arau eta jarraibideen arabera izanik, euren jarduera profesionala efizientziaz bete dezaten, **Fagor Ederlan Taldeak** beren eskura jarritako denborari, aktiboetara eta baliabideetara etekina ateratzeko.

### 10.2 Segurtasun informatikoaren eta jabetza intelektual eta industrialaren babesa

Aktibo eta baliabideak gaizki edo zuhurtzarik gabe erabiltzeak arrisku larria dakar **Fagor Ederlan Taldearentzat** eta taldea osatzen duten Pertsonentzat. Beraz, **Fagor Ederlan Taldeak** segurtasun informatikoa zaindu eta software ez baimenduaren erabilera debekatzen du, eta legez kanpoko erabilera edo sistema informatikoen segurtasunearan edozein elementu arriskutsu sartzeko arriskua daukaten programa edo aplikazioen deskarga, instalazio eta erabilera debekatzen du.

**Fagor Ederlan Taldea** jabetza intelektuala, jabetza industrial eta enpresa sekretuak babestearekin konprometitu dago, bereak zein hirugarrenenak izan.

Pertsona guztiek errespetatu behar dituzte jabetza intelektualeko eta jabetza industrialeko eskubideak, baita enpresa sekretuen eskubideak ere, Enpresarenak berarenak izan edo hura osatzen duten Pertsonenak edo hirugarrenenak izan. Beraz, Pertsona guztiek babestu behar dute eskubide horiei lotutako informazioa, kasu bakoitzean eskubide horien jabe legitimoen lizentziak edo baimenak bilduz.



## 11. KODEA APLIKATZEA. KOMUNIKAZIOAK ETA JARRAIPENA

### 11.1 Indarrean jartzea

Jokabide Kode hau indarrean dago **Fagor Ederlan Taldeko** Kontseilu Errektorean onartu zenetik, hau da, 2017eko irailaren 22tik, eguneratu egin da hainbat aldiz Kontseilu Errektorearen erabakiz, eta indarrean jarraituko du indargabetzeko, berrikusteko edo eguneratzeko berariaz erabaki ezean edo ordezkatzuko duen beste bat indarrean jarri ezean.

Edozein Ez-betetze Betetze Batzordeari jakinarazi behar zaio, Jokabide Kode hau betetzen dela eta zuzen aplikatzen dela zaintzeko organo eskuduna baita.

### 11.2 Jokabide Kodearen interpretazioa

Jokabide Kode honen eta Compliance Program osatzen duten edozein Kontrolen arteko desadostasunen aurrean, Jokabide Kodeak izango du lehentasuna. Kontrolen interpretazioa Jokabide Kode honen espiritua eta azken helburua aintzat hartuta egingo da.

Betetze Batzordeari dagokio Jokabide Kodearen edukia interpretatzea. Bere interpretazio irizpideak derrigorrezkoak dira bere hartzaile guztientzat.

Jokabide Kodearen interpretazioaren gainean zalantzarik sortzen bada, Betetze Batzordeak argituko du, Betetze Zuzendaritzarekin izango duen komunikazioaren bitartez.

### 11.3 Betetze Batzordea

Betetze Batzordea **Fagor Ederlan Taldeko** zuzendaritzak presiditzen du, eta Betetze Funtzioaren berezko gai guztietan du eskumena. Betetze Batzordearen osaketa, funtzionamendua, funtzioak eta dagozkion gainerako gaiak Batzorde horren araudian erregulatu dira.

Betetze Batzordeak **Fagor Ederlan Taldearen** Compliance Program osatzen duten Pertsonak derrigor bete beharreko Kontrolen multzoa osatu eta proposatzen du.

## 11.4 Ez-betetzea eta Barruko Informazio Sistemari jakinaraztea

Jokabide Kode hau ez betetzeak laneko zehazpenak edo zehazpen sozietarioak eragin ditzake, hargatik eragotzi gabe ez-betetzeak zehapen administratibo edo penalak ere eragin ahal izatea.

Ez-betetze baten berri duen edozeinek zuzenean jakinarazi beharko du Barruko Informazio Sistemaren bidez.

Komunikazioen kudeaketaren eta izapidetzearen arduradun operatibo gisa izendatutako pertsona fisikoak (**BISA**) kudeatu eta izapidetuko ditu komunikazioak. Pertsona hori, aldi berean, **Fagor Ederlan Taldeko** Betetze Batzordeko kidea da. Betetze Batzordea da Barruko Informazio Sistemaren Organo Arduraduna (**BISOA**), eta **BISA**ren esku uzten ditu Barruko Informazio Sistemaren ikerketa espedienteak kudeatzeko eta izapidetzeko eginkizunak.

Ezagutzen den Ez-betetzea ez jakinaraztea Jokabide Kode honen urraketatzat joko da. Jokabide Kodearen urraketari buruzko ekintza edo gertaera bat ezkutatzea ez da ulertuko **Fagor Ederlan Taldearen** onerako egindako jarduera dela.

Barruko Informazio Sistemari jakinarazteko, honako bide hauetakoren bat erabil daiteke:

- > Kanal elektronikoa, hemen: <https://whistleblowersoftware.com/secure/fagorederlan>
- > Informatzaileak, nahi izanez gero, hitzordu bat eskatu ahal izango du BISAren aurrez aurreko bilera bat egiteko, eta bertan gertaerak berak zuzenean azaldu ahal izango ditu, eta, hala badagokio, dokumentuak edo beste froga elementu batzuk entregatu ahal izango ditu.

Informatzaileari Barruko Informazio Sistemari egindako Komunikazioarekin lotutako aurrerapenei buruzko informazioa emango zaio, Komunikazioak Kudeatzeko Prozeduran aurreikusitako baldintzetan.

## 11.5 Jakinarazpenen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua

**Fagor Ederlan Taldeak** bermatzen du Barruko Informazio Sistemara aurkeztu diren komunikazioen existentziari eta edukiari buruzko konfidentzialtasuna. Era berean, Barruko Informazio Sistemak komunikazioa modu anonimoan egiteko aukera bermatzen du.

Barruko Informazio Sistemako komunikazio guztiak Informatzailea Babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen eskakizunak eta datu pertsonalak babesteko araudia errespetatuz kudeatuko dira.

Debekatuta dago komunikazio bat egiteagatik inoren aurkako errepresaliarik edo inori ondorio negatiboa ekarriko dion neurririk hartzea, . Komunikazio hori egin duenaren aurkako errepresalia Jokabide Kode honen urraketatzat joko da.

Aurreko paragrafoan adierazitako errepresaliak debekatzeko ez du galaraziko beste neurri batzuk hartzea, barruko ikerketak komunikazioa faltsua dela eta fede txarrez egin dela ziurtatzen badu.



## 11.6 Komunikazioak tramitatzea

Barruko Informazio Sistemaren bidez jasotzen diren komunikazio guztien erregistro bat edukiko da.

Komunikazio bat jaso ondoren, Barruko Informazio Sistemaren dagokion prozedura hasiko da, **Fagor Ederlan Taldearen** Komunikazioak Kudeatzeko Prozeduran aurreikusitako mugarrri eta betekizunekin bat etorriz, horien artean hauek daudela: konfidentzialtasunaren bermea, informatzailearen eta kaltetuaren eskubideak, jaso izanaren agiria informatzaileari bidaltzea, eta Komunikazioaren onarpena eta ezetzapena, eta Betetze Batzordeak Bukaerako Txostena egitea.

Egiten den barruko ikerketan, **Fagor Ederlan Taldeko** edozein sail edo negoziari egoki iriztitako informazioak edo dokumentazioak eskatu ahal izango zaizkie.

Komunikazioak BISArI edo Betetze Batzordeko beste kideren bati eragiten badio, horrek ezingo du tramitazioan parte hartu eta Komunikazioen Kudeaketa Prozeduran kasu honetarako ezarritakoa aplikatu beharko da.

Prozedura horri amaiera emateko, Betetze Batzordeak bukaerako txostena egingo du, eta txosten hori Zuzendaritzari edo Kontseilu Errektoreari helaraziko zaio, dagokionaren arabera. Bukaerako Txostenak, hala badagokio, lege aplikagarriak eta bereziki, Langileen Estatutua eta aplikazioko hitzarmen kolektiboak eta/edo **Fagor Ederlan Taldea** osatzen duten pertsonen aplikagarriak zaizkien Barne Araudia eta beste edozein arau soziolaboral betez eta Komunikazioen Kudeaketa Prozedurari amaiera ematen dion Bukaerako Txostenaren ondorioz dagozkion diziplina neurriak proposatuko ditu, hori guztia egon daitezkeen zehapen administratiboak edo penalei kalterik egin gabe.

## 11.7 Komunikazioak kanal ez-ofizialen bidez edo baimenik gabeko pertsonaren bidez jasotzea

**Fagor Ederlan Taldeak** ezarri ez dituen salaketa kanalen bidez edo komunikazioen tratamenduaren arduradun ez diren langileen bidez bidaltzen diren Komunikazio bat jasotzen duenak, konfidentzialtasuna bermatu behar du, eta berehala bidali behar dio **Fagor Ederlaneko** BISArI.

Komunikazioa jasotzen duenak kaltetutako pertsonen eta Komunikazioan aipatzen diren beste edozein hirugarrenen nortasuna babestu behar du eta horien guztien datuen konfidentzialtasuna bermatu behar du, eta, batez ere, informatzailearenak.

Konfidentzialtasun betebeharra urratzea arau hauste administratibo oso larritzat jotzen da, otsailaren 20ko 2/2023 Legeak, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak, aurreikusten duenaren arabera, eta, era berean, arau hauste penala ere izan daiteke.

## 11.8 Errugabetasun presuntzioa eta ohorerako eskubidea

Errespetatu behar dira kaltetutako pertsonen errugabetasun presuntzioa eta ohorerako eskubidea.

## 11.9 Komunikazioak izapidetzea Whistleblowing Europako Zuzentarauaren irismenetik kanpo dauden **Fagor Ederlan Taldearen** sozietateetan

JILak edo Whistleblowing Europako Zuzentarrutik eratorritako transposizio lege baliokide batek xedatutakoaren arabera BIS bat edukitzeraz behartuta ez dauden **Fagor Ederlan Taldearen** Sozietateen kasuan, Komunikazioa honako bide hauetako bat erabiliz egin ahal izango da:

### **Fagor Ederlan Brasileira Auto Peças, Ltda.**ko pertsonak:

- > compliance@fagorederlan.com.br  
posta helbide elektronikora mezu bat idatziz
- > edo helbide honetara eskutitz bat bidaliz:

**Diretoria de conformidade,**  
Fagor Ederlan Brasileira Auto Peças Ltda.,  
Avenida Nicolau Cesarino, 2297,  
P.O. Box 15, CEP 37640-000-Extrema-MG-Brasil

### **Fagor Ederlan Autoparts KunShan, Co.Ltd.**eko pertsonak:

- > compliance@fagorederlan.cn  
posta helbide elektronikora mezu bat idatziz
- > edo helbide honetara eskutitz bat bidaliz:

**Compliance Officer,**  
Fagor Ederlan Autoparts (KunShan)  
Co.Ltd., No. 309, Jingtang Road (South),  
Qiandeng Town, Kunshan City, Jiangsu Province, China, P.C: 215341

### **Fagor Ederlan Mexico, SA de CV**ko pertsonak:

- > compliance@fagorederlan.mx  
posta elektronikoko helbidera mezu bat idatziz
- > edo helbide honetara eskutitz bat bidaliz:

**Dirección de Cumplimiento,**  
Fagor Ederlan México, S.A. de C.V.,  
Avda Santiago Sur, N° 119, Ciudad Satélite-Zona Industrial,  
Delegación Municipal de Villa de Pozos, San Luis Potosí,  
CP 78423, México

### **GIS Ederlan, SA de CV**ko pertsonak:

- > compliance@gis.com.mx  
posta helbide elektronikora mezu bat idatziz
- > edo helbide honetara eskutitz bat bidaliz:

**Dirección de Cumplimiento,**  
Gisederlan, S.A. de C.V., Eje 114-N° 285,  
Zona Industrial SLP, San Luis Potosí, 78395 México